



## 725 ZB.KO DEKRETUA

Oiartzungo haranean, bi mila eta hamaikako abuztuaren 2an

Gaia: OIARTZUNGO ESKOLA KIROLA ETA UDAL KIROL KONTSEILU EREMUEK KUDEAKETA ZERBITZUA, jardunbide ireki bidez kontratatzeke espedientea. Kontratuaren esleipena.

Alkateak 2011ko ekainaren 9an emandako 543 zb.ko Dekretu bidez, OIARTZUNGO ESKOLA KIROLA ETA UDAL KIROL KONTSEILU EREMUEK KUDEAKETA ZERBITZUA jardunbide ireki bidez kontratatzeke espedientea eta kontratua araupetzeko plegu teknikoak eta administrazio-baldintza zehatzen agiria onartzea erabaki zuen eta esleipena egiteko jardunbideari hasiera ematea.

Lizitazio honen iragarkia Oiartzungo udalaren kontratatzailearen profilean eta 2011ko ekainaren 20an Gipuzkoako aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Aipatu kontratazioan proposamenak aurkezteko epean KIROLAISII XXI SL enpresak bakarrik aurkeztu du proposamena, urteko 29.950,00 eurokoa da (%8BEZ barne).

Kontratazio Mahaiak 2011ko uztailaren 26an egin zuen esleipen-proposamena, KIROLAISII XXI SL enpresaren alde.

2011ko uztailaren 27an Alkatearen 702 zb.ko Dekretu bidez OIARTZUNGO ESKOLA KIROLA ETA UDAL KIROL KONTSEILU EREMUEK KUDEAKETA ZERBITZUA kontratatzeke prozeduran proposamen ekonomiko bakarra eta beraz onuragarriena KIROLAISII XXI SL enpresarena zela erabaki zen.

Sektore Publikoaren Kontratazioa arautzen duen 2007ko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 135.2 artikuluekin adostasunean hamar egun balioduneko epea eman zitzaion enpresari behin-betiko 2.773,15 euroko bermea eratzeko eta dokumentazioa aurkezteko, eta hala egin du KIROLAISII XXI SL enpresak 2011ko abuztuaren 1ean.

KIROLAISII XXI SL enpresari esleitzea proposatzen da, zeinaren eskaintza urteko 29.950,00 eurokoa den (%8 BEZ barne), osotasunean interes publikoetarako abantaila gehien dituen eskaintza ekonomikoa dela irizita, betiere pleguetan ezarritako esleipen-irizpideen arabera Kontratazio Mahaiak egindako eta espedienteetan jasota dauden balorazioetan oinarrituta.

Gaiaren inguruan Administrazio Orokorreko Teknikariak egindako txostenean jasotakoa aintzat hartuz, espedientea bideratzean aplikagarri diren legezko tramite guztiak bete direla kontuan izanik, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan, **ERABAKI DUT**:

1. OIARTZUNGO ESKOLA KIROLA ETA UDAL KIROL KONTSEILU EREMUEK KUDEAKETA ZERBITZUAREN kontratua KIROLAISII XXI SL



OIARTZUNGO  
UDALA

enpresari esleitzea, urteko 29.950,00 euroko prezioarekin (%8 BEZ barne) eta bi urteko gauzatze-epearekin.

Zerbitzua, ikastetxeetako ikasturtearekin batera, irailaren 1etik, ekainaren 15a arte eskainiko da. Beraz, kontratua, 2011ko irailaren 1ean hasi eta 2013ko ekainaren 15ean amaituko da, eskola oporrak kanpo

Ordainketa udal aurrekontuko 1 1102 226 452 00 99 (A 1869-2011) diru-atalaren kargura egingo da.

2. Kontratuaren formalizazioa esleipena jakinarazten denetik hurrengo hamabost egun baliodunetan egingo da.
3. Erabaki hau jakinaraztea enpresa esleipendunari.
4. Esleipen hau udalaren kontratatzaileen profilean argitaratzea.



Aiora Perez de San Roman Uria Alkate-Lehendakari Andreak agintzen eta sinatzen du, eta neuk idazkari naizenez, ziurtatzen.

